

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 2. eranskina aldatzeari

Udalbatzak, 2025eko otsailaren 6an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 2. eranskina aldatzeari (2024/543 espediente), eta 2025eko otsailaren 14ko ALHAOn (18. zk.) argitaratu zen. Erreklamazioak aurkezteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, bat etorritoki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan xedatutakoarekin, eta jendaurrean jartzen da ordenantza fiskalaren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen 2/2024 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean ordenantza fiskala. Hona hemen testua hitzez hitz:

7.2 eranskina.- Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa

1. artikulua. Izaera eta xedea

Tasa honen xedea da etxeetan, lokaletan, saltegietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua ematea, bai eta erantsitako tarifen jasota dagoen eta legez toki erakundeek kudeatu behar duten beste edozein hondakin ere, zerbitzua ematen den modua edozein dela ere.

2. artikulua. Tasa ordaintzeko betebeharra

1. Izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa da etxeetan, lokaletan, saltegietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua, arriskutsuak ez diren merkataritza hondakinak eta industrietan sortzen diren etxekoan antzeko hondakinak kudeatzea barne. Hemendik kanpo geratzen dira industriako hondakinak, etxeetakoak ez diren obretako hondakinak, eta material kutsatuak, erradioaktiboak edo arriskutsuak.

2. Ez dira udal zerbitzuek bildu eta kudeatu beharreko hondakintzat joko, tarifatutako eskubide eta tasak aplikatzearen ondorioetarako, hondakin arriskutsuak, erradioaktiboak, etxeetako obretakoak ez diren eraikuntzakoak eta eraistetakoak, eta industria lanketen ondoriozko hondakinak. Era horretako zerbitzua ematekotan, udalak kasuan kasuko tasa ezarriko du, hondakinak biltzeko zerbitzuaren kudeaketaren ardura duen udaleko atal teknikoaren txostena aztertuta ondoren.

3. 2.1 artikuluan definitutako zerbitzua ematean, ordaintzeko obligazioa zerbitzua emateak sorrarazten du; izan ere, orokorra eta nahitaezkoa izanik, Amurrioko udalerrian zerbitzua ematen den gunean dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularrak edota erabiltzaileak hartaz baliatzen direla joko baita. Horiek horrela, higiezinaren inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa.

4. Bizitegi erabilerako higiezinak, eragin gabeko sute bat izan badute eta horrek erabiltzea eragozten badu erabat, ez dute tasa hori ordaindu beharko hiru urteko epean, ezbeharraren berri modu frogagarrian eman eta hurrengo urtetik aurrera, harik eta higiezina etxebizitza erabilerarako egokitzeko birgaitu arte.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Subjektu pasiboak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2. Zergadunaren ordezkio subjektu pasiboa etxebizitza edo lokalaren jabea izango da. Jabeak, hala dagokionean, ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dizkie etxebizitza edo lokala erabiltzen dutenei, hau da, zerbitzuaren onuradunei.

3. Zerbitzu horiek ematea borondatezkoa denez, horiek eskatzen dituzten pertsona edo erakunde eskatzaileak.

4. artikulua. Sortzapena eta kudeatzeko arauak

1. Zergaldia urte naturala da, eta izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen kuota ezin da murriztu.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3. Borondatezko zerbitzuak emateagatiko kuotak baimena ematen den momentuan sortuko dira eta zerbitzua eman eta jarraian jasoko dira.

5. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

1. Ez dute tasa hau ordaindu beharko Amurrioko Udalaren higiezinak eta Amurrioko udalerriko administrazio batzarrenek, erabilera edozein dela ere.

2. Ez dute zerga ordaindu beharko Amurrioko Udalaren ondasunek eta Amurrioko udalerriko administrazio batzarrenek, errenta kontratu edo lagapen bidez erabili edo ustiatzen badira.

3. Ez dira ordaintzetik salbuetsita egongo udalaren higiezinak edo Amurrioko udalerriko administrazio batzarrenek, baldin eta etxebizitza edo merkataritza lokal modura badaude errentan.

4. Tasa honen zerga oinarrian ehuneko 10eko hobaria izan ahalko du Amurrioko udalerrian komunitate konpostajerako sistemari atxikitako pertsonaren bat erroldatuta dagoen bizitegi higiezinak, baldin eta pertsona horren jabetzakoa bada. Hobari hori aurreko ekitaldian komunitate konpostajea egin duten eta sistema horri atxikita dauden pertsonen jabetzako etxebizitzetara aplikatuko zaie. Aiarako Kuadrillak kudeatuko du sistema horri atxikitzea, eta aipatutako hobaria udal honek aplikatuko du, Aiarako Kuadrillako Ingurumen Sailak aldeko txostena eman ondoren. Hobariaren aplikazioa eta erreklamazioak Amurrioko Udaleko Ingurumen Sailak izapidetuko ditu.

6. artikulua. Tarifak eta aplikatzeko arauak

Zerga kuota kopuru finko bat izango da, higiezinaren izaeraren eta xedearen arabera zehaztuko dena, etxebizitzarako edo jarduera bat gauzatzeko erabiltzen den lokal, establezimendu edo higiezin bakoitzeko, ondoren zehazten diren epigrafeen eta, hala badagokio, zenbatekoen arabera:

1. epigrafea. Etxebizitzak horrela erabilia, etxebizitzetarako zerbitzu zentroak (auzokoen erkidegoak, ur bero sanitarioaren zerbitzu komunitarioa, ibilgailuak gordetzeko lokalak...), irabazteko xederik gabeko aisialdi, kultura edo erlijio jardueretarako lokalak (txokoak, gazteen lonjak, gurtza lekuak...) eta beste epigrafe batean jasota ez dagoen jarduera bat egiten dela nabaritzen den lonjak.

2. epigrafea. Ikastetxeak eta irakaskuntza zentroak, adibidez, jantzigintza, piano, dantza, eta hizkuntza akademiak, administrazio ikasketak, autoeskolak, eta abar.

3. epigrafea. Edozein eratako gaien –elikagaiak izan ezik– txikizkako saltegiak, esaterako: kirol dendak, tabako dendak, botikak, filateliak, loradendak, jostailu dendak, etxetresna elektriko dendak, loteriak, artile dendak, liburu dendak, mihise dendak, optikak, paper margotuen eta margoen dendak, lurrin dendak, aterki dendak, drogeriak, erloju dendak, oinetako dendak, altzari dendak, jantzi dendak, informatikako, telefoniako eta komunikazioko produktuak eta abar. Ile apaindegiak, edertasun zentroak eta masaje zentroak. Okindegiak eta esne dendak. Gimnasioak. Jolas aretoak. Jendearentzat irekita ez dauden biltegiak. Saltegientzako zerbitzu zentroak (merkataritza galeriak, merkataritza elkarteak, bulegoak, etab.).

4. epigrafea. Ostatuak eta apopilo etxeak. Ontziratutako edarien eta elikagaien txikizkako merkataritza, okindegiak eta esne dendak izan ezik, hala nola harategiak, arrandegiak, fruta dendak, janari dendak, izozki dendak, gozotegiak, etab. Aseguru etxeak, bidaia agentziak, bulegoak, aholkularitza bulegoak, higiezinaren jabetzako agentziak, dekorazio edota arkitektura bulegoak... Mediku kontsultategiak, OLTak, psikologoak, psikologo logopedak, etab., baita etxebizitzetan badaude ere.

5. epigrafea. Kafetegiak, tabernak, dastalekuak, etab. Industria erabilerarako hiri lurzoruan kokatutako saltegiak, ingeniariak, zerbitzu eta komunikazio enpresak, etab. Industriak, oro har, hala nola aroztegiak, galdaragintza lantegiak, karrozeriak, txatartegiak, konponketa lantegiak, beirategiak, tapiztegiak, ibilgailuen konponketa, oinetako konponketa, tindategiak, gasolindegiak, zerbitzuguneak, etab.

6. epigrafea. Bankuak edo aurrezki kutxak. Zinemak, diskotekak, dantzalekuak, bingoak. Jatetxeak eta garagardotegiak. Bitxi dendak, notariotzak, larrutegiak, klinikak, urre salerosketa.

7. epigrafea. Zerbitzu bereziak. Bide publikoan utzitako hondakinak kentzeak eta orubeak eta lokalak garbitzeak honako tasa hauek sortuko dituzte, hondakin motaren arabera:

Zabor arrunta: 360,00 euro/tona.

Eraikuntza eta eraispen hondakinak: 180,00 euro/tona.

Bestelako hondakin ez-arriskutsuak: 270,00 euro/tona.

Hondakin arriskutsuak: 1.180,00 euro/tona.

Tarifa

EPIGRAFEA	KUOTA EUROTAN
1	130,75
2	163,07
3	220,33
4	162,19
5	280,37
6	315,49

7. artikulua. Kudeaketa arauak

a).- Arau haustea ordenantza fiskal orokorrean ezarritako moduan zehatuko dira.

b).- Zigorak ezarrita ere, ordaindu ez diren eta preskribatu ez duten kuotak likidatu eta kobratuko dira.

8. artikulua.

Ordenantza honetan jasota ez dagoenerako, ordenantza fiskal orokorra aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

2026ko urtarilaren 1etik aurrera izango da indarrean hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuak ordaintzeko tasa arautzen duen 7.2 eranskina, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea onesten den arte.

Amurrio, 2025eko martxoaren 31

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA